



Larizondo etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa:



43° 11' 19"

2° 34' 13"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

XXI. mende hasieran egindako txalet berria dugu. *Lariz* (**Ikus Lariz**) baserriaren *Etxeondo* soroan eraikia zen, eta hortik hartu du izena: *Lariz* (*etxe*) *ondo*.

Erripa aprobetxatuz, azpian garajea kokatu zuten. Bi isurkiko teilatua duen etxea da eta bere fatxada nagusia teilatuaren ardatzaren arabera antolatuta dauka. Erdia zeharo gailentzen da,

baoen eta horien pertsianen kolore ilunari esker. Bertan, beheko solairuan hiru dira leihoak, elkarren ondoan, eta goikoan, teilatupean, balkoia dauka, zeinera leiho luze bi zabaltzen diren. Aldamenetan, oster, leiho bakarra du ezkerrean, eta bestean, atzeratuta eta aterpe gisa, sarrera. Hormak luzituta ditu, eta ertzak harlanduz estalita.

toponimia

Arestian aipatu den moduan (**Ikus Larizgoikoa**) jatorrian etxe bakarra egon zen eta bigarren bat eraikitzean zerbait bereizgarri gehitzen zioten berriari eta gehienetan zaharrari. Kasu honetan Lariz (**Ikus Lariz**) palazioaren ondoan eraikitako etxea dugu.